

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

136n. Zenbakia Abendua

1989



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**MUNGIA**  
**ANDRA MARIA TA KEPA DEUNAREN ELEIZEA**  
— Altarea ta ingurua, aldakuntza-aurretik.  
— Iruditegian: Andra Maria ta Kepa Deunaren  
bizitzako jazokizun gogoangarriak.

## SEI ZIO

Jakintza-aldiaren egunsentian gagoz oraindiño eta egiten dan aurkitze bakoitzean dizdiratsuago agertzen da Egille-adimenaren aunditasuna.

Agerketa arrigarriak egin dira. Jakintzak apaltasunagaz eta fedearen espirituan oiñarrituta jokatzen dauanean, ge-roago ta geiago urreratzen gara Jaungoikoaren bideak ulertzera.

Neuri buruz, neure sinismena indartu dagidan sei zio daukadaz.

Lenengoa: Gure mundua oso-osoan aldakor barik, matematika lege batzutan oiñarritua dala ikusten dogu. Gure kos-mos au neurribako adimenak asmau eta egin ebala agiri da. Adibidez, gure bizi-iturri dan eguzkiak bere gaiñean 10.000 Fahrenheit bero-mailla daukaz eta gure lurra naiko urrinduta dago bero aundi onek berotu gagingan, baiña ez larregi. Eguzkiak berorik erdia emongo ba'leusku, leitu egingo gintzakez eta orain emoten daskun baiño erdi bat geiago emongo ba'leuke, kizkalduta geratuko gintzakez.

Bigarrena: Biziazen asmakizuna bere elbururantz doala ikusteak, adimen zoli ta zorrotza agertzen dau. Bizidunen barruan dagoan bizitzea iñok ez dau ikertu eta aztertu sakontasun guztiagaz. Bizidun bakoitxak bere berezitasunak dau-kaz: zugatz bakoitxaren orriak marratu ta margoztu dauzan ertilaria eta lora bakoitxari bere margoa emon dautsona, ba-da zerbait. Egazti bakoitxari bere maitasunezko abestia irakatsi dautsona, zomorroak euren soñu bereziakaz alkarrari barriak emoten irakastea, gauza arrigarria da. Bizia kimikari gorengo bat da eta frutuai agorako gozotasun berezia emo-ten dautse, baita lorai usaiña be; orri orlegiak arnasgaiak aldatzen dauz eta gizaki ta abereentzat ortik sortzen dira oksii-jeno-gaiak.

Irugarrena: Abereen jakintzak egillearen ontasuna erakusten dau. Izaki txiki ta apalak diran abereak euren sena dauke eta laguntza ori barik, babes bage zurtz eginda geratuko litzakez.

Adibidez izokun edo salmoi gazteak itxasoz urteak igaroten dauz eta gero jaio zan erre kara dator barriro. Zerk beartzen dau ain zuzen jaio zan ibaira?

Aingiriak dauke jokabide miragarria zelakoa dan asmatzea, oraindiño gauza gaitxagoa dala ikusten dogu. Euren joan-etorria mille milla itxasoan zear izaten da Bermudas ondora joan eta ilten diran leizeko sakonera eldu arte. Nondik da-torke bultzada ori?

Laugarrena: Abereen sena baiño gauza aundiagoa da gizakiak daukana: Adimenaren argitasuna.

Ez da izan abererik amar urte zenbatzeko gai izan danik edo amar zenbakiaren ulermena daukanik. Abereen sena txi-rolaren eres bat lez da baiña gizonak orren orde zeres-mota guztien soñua dauko.

Bostgarrena: Bizidun guztientzat bizigarriz orniduta dago, "gene" miragarria.

Gene oneik txiki-txikiak dira mundu guztiko bizidunen erantzukizuna izan arren. Dan -Danak toki baten ipiñita, toki au ez litzake izango atzamarraren urrats bat baiño geiago.

Seigarrena: Egintza au gizonen artean Jaungoikoaren gogamena sortzeko gauza berarizkoa da, ezaubide ederra.

Jaungoikoaren gogamena Jaungoikoaren almenetik sortzen da, gure inguruko beste munduarekin banatuta agiri dan, irudimen-almena deitzen dautsaguna.

Gizonak eta andrak euren almenaren bidez ikusten dabe, eta eurak bakarrik ikusi be, ikusgarri ez diran gauzen aundi-tasuna. Irudimenaren ikuspegia, muga-bakoa da eta gizakiak banandu lei elburu agiri guztietan dan au, zerua bakoitxak gura dauan lekuan dagoala, Jaungoikoa gauza eta leku guztietan bizi dala, baiña iñon be ez geure biotz-barruan bizi dan bestean sakon eta urrean.

Jakintzaz eta irudimenez be egia da salmolariak esan ebana: Jaungoikoaren aintza zeruak adierazoten dabela eta goiko ortziak eta izartegiak aren eskuen egintza miragarriak abesten dabezela.

## GABON-GIROA

Egualdi onak izan diralako-edo, ia konturatu barik urreratu jakuz Gabon-Jai pozgarriak, urte zarraren azkena eta barriaren asierea.

Gabon-giro orretan erri jaiak ospatzen doguz: Gure kaleetan poz-giroan agertuko da Olentzero, gure etxeetan pozez ospatuko dogu gabon-aparia eta jai pozgarri orretan kontuan izango doguz erbestean daukaguzan senideak edo gau zoragarri orretan etxera etorri ezin diranak.

Gure poz giro au ez da etxekoa bakarrik. Egun orretan poz giroan ikusten dogu munduaren egoerea eta aurten poz eta itxaropen berezia emoten dauskuez Europa'ko sortaldean diran laterrietan ikusten doguzan aldakuntzak, aldakuntza oneik gabon-aurrean sendotuta ikusten ba'doguz beintzat.

Eta egun orreitan, jarraibide au daroagunok, giro berezia aurkituko dogu geure kristiñau-bazarretan, eleizetan.

Gure kaleetako giroa ikusi ezkerro sarritan ezin esan al izango dogu besterik "emendik igaro zan Kristo" baiño. Eleiz-giroan izango al dabe beste berotasun bat jai oneik. Eta bai ziurtasun aundiagoaz fededun zintzoen biotzetan agerpen berezia izango dau egun oneitan ospatzen dan jai aundiak.

Eta urrengo ZER agertu baiño lenago Urte barria izango dogu. Urte orretarako eskuetan izango dogu EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k amar urtetan jarraian argitaratu dauan eta eguneroko irakurgai-orria eskintzen dauskun egutegia, egunerik egunera igaroko dan 1990n.urtearen ezaugarria. Bizkai'ko Aurrezki-Kutzaren laguntzaz argitaratzen dogu egutegi ori eta erakunde onek dauzan ordezte-etxeetan eskatu leike eskuratu nai dauanak.

Zoriona opa dautsegu gure irakurle guztiai eta laguntzailleai, zoriona gabon jai pozgarri oneitan eta zoriona itxaropenez beterik datorkun 1990 urte barri onetan.

### **EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN EGUTEGIA**

**Beste urteetan lez, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K eguneroko orria eskintzen dauan egutegia argitaratu dau Bizkai'ko Aurrezki-Kutzaren laguntzaz. Egutegi au eskuratu nai daben guztiak eskatu begie Bizkai'ko Aurrezki-Kutzaren idazgo-Etxeetan.**

**Amargarrenez eskintzen dautsegu gure irakurleai opari au eta pozik artzen dabela daki-gun ezkerro, geure eskerrik beroena agertzen eurai.**

**EUSKERAZALEAK**

# | PERESTROIKA DALA-TA

## DOMUTASUNA TA GIZARTETASUNA

Gaurko mundu zabalean, ekonomi-arloan, jokabide bi daukaguz oso zabalak eta errigintza edo politikarako be ondoren aundiak daukezenak: Domutasuna (Capitalismo) eta Gizartetasuna (Socialismo). Gero jokabide bi orrein erdian eta alboetan beste bide edo erdibide batzuk sortu dira.

Domutasuna ta gizartetasuna bereizteko muga bat ezarri geinke: Lantegien edo ondorenak lortzeko bideen jabetasuna. Gizartetasunarentzat lantegiak eta irabazbideak laterriaren jabetzapean dagoz, domutasunarentzat, ostera lantegiak edo irabazbideak banakakoenak dira.

## ONDORENAK

Gaurko laterrien aurrerabidean jokabide bi orreik argi agertzen dira, naizta asko izan erdibidean dagozenak.

Errusia eta komunista diran laterriak zeatz eusten dautsoe muga oneri eta laterri orreitan inor ezin izan leiteke lantegiaren jabe, laterria izan ezik, eta orrelan oso-osoan alboratu da gizon batzuk beste batzuren izerdia onuratzea.

Laterri Batuak eta beste asko ostera, beste bide batetik doaz: Lantegiak eta ondorenak lortzeko bideak banakakoen edo alkarteen jabetzapean dagoz eta ez dira laterriarenak. Or gizon batzuk beste batzuren izerdia onuratzeko arriskua ikusten dabe gizarte-zaleak.

Baiña ondorenak lortzea bera begiratu ezker, gizartetasunaren bidetik doazen laterriak ondoren gitxi lortzen dabe eta laterria bera aberatsa izatea lortu ba'da be, erritarrak geienetan txirotasun gorrian bizi dira, eta, gaiñera, lenintasunak eraginda edo, askatasuna oso mugatuta dauken laterriak dira.

Domutasunaren bidea artu daben laterriak, ostera, laterri aberatsak dira eta erritarrak be askatasunean eta ondasunez orniduta bizi dira, naizta olakoetan be ugari izan txiro-lekuak.

## ZERGAITIK?

Ori, gitxi gorabera, orrelan izateñ dala ikusirik, itaun batzuk datorkuz eta erantzuna emoten alegindu bear gara.

Zergaitik bizi dira txirotasunean gizartetasun-bidea dauken laterrietako erritarrak?

Lenengo ta bein, lanaren ondorena dan ondasuna norberarentzat ez danean, lanean alegin gitxiago egiten dalako. Ori gizonen majaltasuna da, norberekeria da, baiña gizonak olakoxeak gara eta laterriarentzat lan egiteak laster aspertzen gaitu, ez ostera norberarentzat lan egiteak.

Gaiñera ezin ukatu, laterri aundi orreik izkilibidean eralketa ikaragarriak egin dabezena. Beste bideko laterriak be ori berori egin dabe baiña aurrera urten. Gizarte-bidekoak ez dabe lortu, antza.

## ZEIN ONENA?

Domutasunak norberekeria dau oiñarri, eta ori gizona okerbidera makurtzea da, gizartetasunak ostera, askatasuna kentzen dau eta gaiñera ainbeste urte igaro ondoren ez dau lortu erritarraren txirotasuna kentzea.

Urtenbide bat: Gizonari bere askatasuna emon eta erri-erakundeetan demokrazia sartu, baiña ondorenak lortzeko bideak edo lantegiak laterriaren eskuetan dirala. Ori litzake gizarte-

-demokraziaren bidea, baiña ez da lortzeko erreza. Gaiñera indarra galduta dagozan gaurko gizarte jokabideak oraindiño askoz geiago bigundu dabe euren egitaraua: gizarteratzea geroko elburu lez izten dabe eta oraingoz naikoa dalata dagoz, zergen bidez laterri-ondasuntzak sendotzea.

### PERESTROIKA:

Errusia'n eta bere inguruko laterrietan gogor artu izan da gizartetasunaren bide ori etorkizuneari askatasunera eltzeko itxaropena eskiñiz.

Baiña urteak joan eta urteak etorri, ez da agertu askatasunaren giroa eta erriak itxaropena galdu dau.

Gorbatxob agintaria izan da orretzaz lenengo konturatu dana eta aldakuntza arrigarri bat es-

kiñi dautse erriai: Errusia'k berak beintzat komunista izaten jarraitzen dau, baiña aberriak kontuan artu eta onei burujabetza geiago eskiñita, agintaritza gogorraren orde demokrazi-antzeko bat eskintzen dala.

Antzeko aldakuntzak ikusten doguz Polonia'n, Sortaldeko Alemanian eta beste laterri batzutan, Txina'n ostera olako jokabidea oraingoz zapaldua izan da.

Dana dala, aspaldiko urteetan zomau ez dan askatasun-giroa ikusten dogu gaur laterrien artean, itxaropen barri batek egin dausku argi.

Bai giro orretan bizi izan diran laterrientzat eta bai Europa'ko sartaldean alkartuta dagozan beste laterrientzat, mundu barri bat bat asi dala sortzen esan lei eta itxaropen onek ez al dausku utsik emongo.

GAMIZ'ek

## "ZER" ALDIZKARIA-DIRUZAINZTA

### OARRA

Ez dira gitxi gure ZER onen igazko ordain-saria emon ez dabenak, Eskaritxu bat egiten dautzuegu: Ordaintzeko erarik errezena txeke bat bialtzea dozue. Igazkoa ordaintzekotan 1.000 pezeta eta aurtengoa ordaindu nai ba'dozue, beste 1.000 pezeta.

Diru aldetik naiko estu gabiltz, arren eskatzen dautzuegu ba: Artu egizue kontu idegiko txeketegia eta bialdu dirutza orregaz EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ri. Sartu txekea karta-azal baten eta bialdu zuzenbide onetara:

EUSKERAZALEAK  
Colon de Larreategi, 14, 2.<sup>a</sup>  
48001 BILBAO

ESKERRIK ASKO!!!

## TXISTULARIAK

Urretxindorra esaten dautosen Enbeita gure bersolariak olako au idatzi eban:

Euskalerrian dagon ainbat txistulari  
euren txistuz alaitzen  
baserri ta uri.  
Zarrak poztuten ditu,  
gazteak dantzari,  
eskerrak gure euskaldun  
txistulariai".

Olango bat da Aldekoa'tar Alexander.

Durango-aldean buru-jabe, soiñu onen adierazle onenentzat artzen dabe.

Aldekoa 1920'an jaioa dogu eta Berriz'ko San Lorentzo auzoa da bere jaio-leku, Markiña'rantza doan bi-dearen ondoan. Antxe aurkitu zan irakasle, Amezua'ren lana osotuko ebana.

Jose Antonio Agirre'k bere etxe-ondoan batzoki bat idegi eban 1932n.urtean. San Salvador'eko auzokideak diranak Laspiur'tar Leon, Eibar'eko txistularien egundoko trebetasuna txistuari soiñuak aterateko eukazana ederretsi eben. Laspiur izan zan eginbear ori atsegintzera deitua eta gero berau izan zan gure Berriz'tararren soiñu-irakasle.

Onen aitak, Eibar'eko musikarieren jardun-aldia ikusirik, eta lagun baten aolkua entzunda, Alexander bere semeak txistua jotzen ikasi bear ebala erabagi eban, eta orretarako maisu ona Laspiur jauna izango zala. Erabagi onek gaur Durango-aldean onentzat artzen dan txistulariaren oroimenean betirako izango dan txistularia sortu eban.

Eta zer diño txistulariak berak?

— Nire aitak Laspiur'en ondora eroan ninduanen, onek lenengo itaundu eustana solfeoa ete nekian izan zan. Eta nire erantzuna ezetza izan zan lez, ikasteko esan eustan.

Eta orixe egiten asi nintzan abade baten laguntzaz eta ille bi geroago, gudea sortu baiño lenago, lau urtean nire irakaslea izango zanaren aurrera aurkeztu nintzan. Gudea asi zanerako Aldekoa gazteak "Idiarena"ren aldakuntza nastetsuak ikasi ebazan.

Ogei ta amaseiko guda latzak Berriz'ko txistulariari garaia, egokiorea kendu eutson, Begoña'n izan zan Udalaxeak eratutako norgeiagora joateko.

Afrika'ra joan bear izan ebanean gudari-lagunak arrituta itzi ebazan soiñu-tresna bakan onegaz.

Urteak igaroz, jazoriko au egin zan ipuiñik atsegingarriena bere oroimenerako. Berak esan eustanetik ikusten da: "Ni gudari nintzala, Afrika'ko oialpean kapitai soiñu-zale batek abesbatzaren soiñuren bat jotzen iñok ete ekian itaundu eban; baiña nik an ez neukan txisturik. Nire lagun bat baimenaz joan zan Europa'ra eta Berriz'era eldu eta niri ezer esan barik txistua ekarri eban. Afrika'ko oialpean txistua jotzen entzun ninduanen Alferrez batek esan eustan gabaz kapitaiaren txabolara joateko. Emen, Aragoitarrak ziran lez, eurentzat Aragoi'ko jota bat jo neban eta gero "Idiarena" aldakuntzak.

Jardun-aldia amaitu nebanean, txistua eskatu eustan. Emon neutson. Begiratu eta ikusi eban alde guztietatik eta arrituta itaundu eustan zelan iru zulo bakarrik daukazala ain eres-mota zoragarriak atera leikezan. Beingoan deitu eutson turutari eta esan eutson. "Zoaz zure turuta orregaz, emen dago soiñu-tresna bat iru zuloz zureak baiño askoz eres-mota obeak ateraten dauzana".

Jazokizun orrean ostean, guda-ostean izan dauzan barrien artean, batzuk mingarriak izan dira: Bere aita atzerriratu eben, bere anai bat bonbaketa baten ondoren lez il egin zan eta beste anai bat atxillotu eta langileen batalloira sartu.

Aldekoa'tar Alexander bildurtu egin zan eta txistularitza bera be jarraitzeko bidean ete egoan zalantzak eukazan: "Nire semeak eta gazteak geienez ez dira gauza ekiñaldiak egiteko, ez dauke orretarako nik izan dodan beste gogo".

Jai-aldiak bizkortuten eta sututen berak eukan ainbeste urtetako bizi-ikasia atsegingarria zan: Berriz'en, Yurreta'n, Garai'n eta inguruetan talde ezbaridiñen esker ona lortu eban eta ezaupidea irabazi be bai. Sarritan egin dautsoe jai eta goraldtu dabe Aldekoa'tar Alexander txistulari ospetsua. Azkenengoz aurtengo dagonillaren 3'an Garai erritxuan jai zoragarria egin dautsoe.

EGILUZE'k

---

**KONTAKETA ULERTERREZA**

---

Oso urrun dagon erri bateko errege bat zan. Erregea gaztea zan, gazte eta arroa bere bai. Egunero ispilluan ikusten eban bere burua bere gaztetasunaz arrotzeko. Munduko gauzarik onena gaztetasuna zala uste izaten eban, zaartzaroa beraz gorroto eban.

Bere erriko kalterik txarrena zaartzaroa zana berotu eban burua eta orregaitik erriko zaar guztiak il egitea erabagi eban. Errian bildur-ikara sortu zan eta gazteak erregearengana errukia eskatzen joan ziran, euren gurasoak asko maite ebezalata.

Erregeak bere itza aldatu ezin ebala esan eban baña erabakia biguntzeko baldintza bat asmau eban; bere Gazteluko zingiran urrezko pitxar bat egoala esan eban eta norbaitek arrapatuko baleu zaarren bizitzak parkatuko ebazala baña zingiratik pitxerra barik urtengo leukenaren aita il egingo leukela bere, esan eban.

Erriko gazteak erregearen baldintza oso erreza zala pentsatu eben eta betetzeko asmoaz ugerlaririk trebeenagaz zingiraraño joan ziran. Zingiraren sakonean urrezko pitxerra oso argi ikusten zan baña sakonean ondo arakatu arren, ezin eban pitxerra aurkitu. Erregeak gazte aren aita il-egiteko asmoaz espetxera eroan eban. Andik egun batzutara, espetxea gizon zaarrez ia beterik egoan eta erriko jendeak negarrari emon eutson.

Erriko mendi bateko etxetxo batean, gazte bat bere aita zaarragaz bizi zan. Gazteak erregearen agindutakoaz bildurturik, etxetik urrun oso ondo ezkutatu eban bere aita. Astean bein, aste osorako janaria eroaten eutson eta erritik, bere aita il zala esan eban.

Egunak joan egunak etorri, gure mutillaren aita orrelako bizitzaren bizimoduaz gogaitu zan eta etxera barrero joatea eskatu eutson semeari. Semeak bildurrez, erregearen esana, baldintza eta guzti kontatu eutson aitari eta onek iribarre gozo bategaz baldintzaren erabagia argi eta garbi azaldu eutson mutillari.

Alaitasunez beterik, erregearengana joan zan eta pitxerra berak emongo leuskiola esanez, erriko zaar guztien bizitzak parkatu bear ebazala eskatu eutson. Erregeak egin-eziñaren siñistiaz baietz esan eutson eta gure mutilla poz-pozik zingirarantz joan zan.

Zingiraren basterrean zugaitzik altsuena billatu eban eta billatu ebanean bere adarretatik gora igoten asi zan. Jendeak arriturik zoratu egin zala pentsatu eban baña jatsiten ikusi ebanean, oso pozik etorrela ikusi eben eta eskuetan urrezko pitxerra ekarrela. Bere aitak esan ebanez, ango zugaitzik aundienaren puntan egoan pitxerra eta zingiraren izpilluan isladatzen zan. Orregaitik sakonean aurkitzea, eziña zan.

Erregea, gaztearen jakituriaz arritu zan eta gazteak orduan, jakituria eta asmoa bere aitarenak izan zirala eta zaar guztien jakituria bearrezkoa zala azaldu eutson erregeari. Itz guzti onek ziurtatzeko, kartzelan edo espetxean egozan agureak beraganatu ebazan eta euren arrazoiak, aolkuak eta ondo-esanak entzun ondoren, arriturik geratu zan eta ordutik aurrera ta erriaren onerako, bere ule zuriak eta bere zartzaroaren elduera, lasaitasunez onartu ebazan, gizon zaarren aolku onaz inguratzen.

Daukan mamia atara dozu? orrela bada betirako zorionekoa izango zara.

## ORI DOK, KRUTWIG BAINA EZ DOK ARRAZOI OSOA

Badirudi, poliki-poliki, "el batua"ren sortzailleak "el batua" sortzearekin okerkeri aundi bat egin ez ote eben, kontuan erortzen asiak dirala.

Igarotako dagonillaren 30'ean Krutwig Sagredo'ren azalpen batzuk argitara eman ebazan "Gaur-Express" izparringiak.

Azalpen oietan, aipagarriena, Krutwig'en esaldi biribil au: "el batua"k ez dau ezertarako balio". "El batua no sirve para nada", Krutwig ber-beraren itzetan.

Euskalerrian gizon ezaguna dogu Federiko Krutwig Sagredo'tarra. Ezaguna, batez ere, "Vasconia" izeneko bere liburua. Liburu au izan zan, ain zuzen, aro luzean, ETA'ren "liburu santua", ETA'ren aurreneko urteetan.

Krutwig, "el batua"ren sorkuntzan egon zan. Ez dakit ordurako ETA'koa zan; Krutwig'en ibillerak jakitea, ez bait da gauza erreza. Danadala, "el batua" ETA'ren giroan sortu zala, Txillardegi'k berak esan-berria da.

"El batua" ez zala Krutwig'ek nai zuan bezala tajutua izan, bai, ori egia da; baiñan ez da arritzekoa; "el batua"ren sortzailleetan, bakoitzak, bere gustora eratu nai izan eban ba izketa-modu berri au.

Geroxeago, azkenean, Koldo Mitxelena batustanoen aitasantuaren iritzira... makurtu ziran danak. Danak, Krutwig izan ezik, Krutwig ez bait da besteen iritzietara errez makurtzeko gizona, bera nortasun sendo gogorreko pertsona dalarik.

"El batua"k ez dau ezertarako balio? Bai, eta ez!

"El batua"k ez du balio ertirako (antzertirako, adibidez; edo olertirako, eleberritarako eta filosofigintzarako). Ez du beraz, ez ertirako ez jakintzarako balio. Ez du, ezta, gizartean alkarriketarako balio. Ori, Mitxelena'k berak milla aldiz esan dau. Eta Mitxelena'ren atzetik, "el batua"ren larre doneetako "bei sagaratu" guztiek.

Zertarako izan zan ba "el batua" doakabe au sortua? "Administraketarako", erantzungo dautsu Mitxelena'k; eta, Mitxelena'rekin batera, bere mirabe leialek danek.

Ta..., administraketa utserako izkuntza berri bat sortzea..., bai al da orrenbeste naigabe merezi daun gauza? Erriko Euskerak, betidanik eginkizunik zailletarako —ertigintzarako eta filosofigintzarako balio ba'eban, ez al eban errenerako —administraketarako— balio?

Bai, irakurle; baiñan, naiz Mitxelena'k ori esan, "el batua" ez bait zan administraketarako sortu! Iraultzalarien izkera izateko baizik!

Alatagutziz, eskertzekoa dogu Krutwig adiskidearen esaldi mardula: "El batua"k ez dau ezertarako balio".

Barkatu beist Krutwig'ek; baiñan "el batua"k ez dau ezertarako balio..., ez da osoan egia. Balio dau —balio izan dau—, gure iraultzalari komunista guztien izkuntza izateko. Arritzeko gauza: gure artean ezkertiar guztiak, eta zenbat eta ezkertiarago geiago, i "el batua"ren alde jarri izan dira! Eta, baita Euzkadi'tik at, España'n beratan ere. Ala, "Partido Comunista de España" bera.

Balio dau, "el batua"k, beste gauza baterako ere: euskera iltzekoM!

"El batua"k seme-alaben izkera bere gurasoen izkeratik bereizi dau, dio Krutwig'ek beste esaldi batean.

Egia. Eta orretxegaitik ain zuzen, ederto balio dau "el batua"k euskera iltzeko.

Baiñan ori guzia milla aldiz esan dogu guk, Krutwig, eta ez dausku iñork jaramonik egin. Zuri ere, adiskide, ez dautsue egingo. Ori ote da, ain zuzen, ori!, euskera iltzea, batustanoek lortu gura daben gauza?

Batustanoek jakin bear dabe bâ, Bizkai'n bizkaiera galtzen ba'da, aren orde, ez goxotasunik ez giartasunik ez daun berbaketa txoro bat ez baiña, indarrez eta bizkortasunez beterik gaiñera datorkigun "kastellanoa" itzeringo dala;



eta arrezkero, Bizkai, Españi'ko probintzien mapan, Guadalajara bat geiago besterik ez dala izango.

"El batua", illik jaio dan izkuntza dala ere badiñosku Krutwig'ek. bai; baiñan ez eizu aztu gorpu illak, len-bait-len obiratzen ez ba'da, eriotza zabaltzen daula bere inguruan.

Ez dozu arrazoirik Krutwig, Euskeraren Bata-suna egiteko oiñarriztat Laburdiera zarra artu bear dala diñozunean ere. Laburdiera zarrak zorraturik zauzka, Krutwig. Nik ez dausut esango laburdiera euskalki bikaiña ez danik —niretzat lau euskera nagusiak bait dira era bardiñean ederrak—. Baiñan bai, esango dausut, Laburdiera zarra, liburu zarretan bakarrik aurkitzen dan laburdiera zar ori, latinkeri zakarrez eta frantzeskeri baldarrez beterik dagola.

Eta, gaur egun, ulertzeko zailla egiten yakela oraingo laburditarrei beraiei!

Gaztelarrek, beren izkera bizkortzeko, XII mendeko gaztelara zarra artuko baleukee, ez al leukee ganoragabekeri aundi bat egingo?

Gaiñera laburdiera, gaurko laburdiera bera, Laburdi'n bertan, laburditarren erdiek ere ez dabe itzegiten, geienek benaparrera erabiltzen bait dabe. Izkeraz, Benaparroa da ba, Laburdi- ren sortalde guzia, Gipuzkoa'ren sarkaldea Bizkai dan bezala.

Beraz, euskaldunotan eunetik iru (%3) doi- doi izango dira laburdieraz egiten dabenak.

Besterik gabe, zenbaki oiek bakarrik naikoa dira, Euskerak bateratzerik bear ba'leu ere —ez bait dau bear—, bateratze orren oiñarriztat Laburdiera artzea, erokeririk aundiena izan dala oiu egiteko.

Gaurko "el batua" k, ordea, benaparrera artu dau oiñarriztat. Baiñan benaparreraz mintzatzen diranak ere, ez dira euskaldunon artean beste eundik iru bat (%3) baiño geiago. Naiko arrazoa, orixe bakarrik, gaurko "el batua" zentzugabekeri utsa dala esateko.

Gaiñera, gaurko "el batua" anker ori frantzeskeriz eta españolkeriz beterik aurkitzen dogu. "Zuen batu ori ulertzeko "el Diccionario de la Real Academia Española" artu bear izaten dot nik", esan euskun Txarriton'ek Beragara'ko batzarrean. Ta, guk, jakiña, aien batua ulertzeko Frantzi'ko Akademiarena erabilli bearrean aurkitzen gintzazala, erantzun geuntsan.

Ori bakarrik, Krutwig, ez al dogu naikoa "el batua" euskera iltzera datorrela esateko?

Ala..., "el batua"ren sortzailleek gure erri landerreko euskaldun xumeak bi iztegi, Frantzi'koa eta Españi'koa, besapean arturik ibilliko zirala uste ote eben?

Euskera, iltzer dago. Iltzer dagoan edozeiñi eta edozerri, erreztasunak eman bear yakoz bizi- tzen jarrai daian. Eriogarri dau, arnasa zailtzen dautson oro.

Orregaitik diñot, "el batua", euskera iltzeko, iñork asmatu eikean izkillurik egokiena dala. Ori nai ote eben bere asmatzailleek? ETA'ren giroan sortu zan "el batua". ETA'koak, komunista marxi-leninzale gogorak doguz. Eta Marx'entzat, Engels'entzat eta Lenin'entzat, erri txikiak eta erri txiki oien izkuntza txikiak, len-beitlen ezabatu bear diran izakiak dira.

Euskerak bateratzerik bear baleu, iltzer dagoan euskera orri erreztasunik geiena emateko, geienek itzegiten daben euskalkia artzea izango litzake zentzurik oneneko gauza: Erdiko Euskalkia: Azkue'ren bidetik, Gipuzkera osotua. Laburdiera bera, Gipuzkera'ren aldakuntza bat besterik ez bait da.

Baiña Euskerak ez dau bateratze bearrik, bere batasuna badau-ta. Zu, Krutwig, eleneraz yayoa zera. Orixe da ba euskeraren batasuna ere. Batean laukoitza izatea. Eta batasuna zearo egiñik dogu, euskaldun bakoitzak bere euskalkia ondo ikasten ba'dau. Geinaz..., naikoa yako beste euskalkien aditz jokuak ikastea. Ori..., euskalki oiek iltzegiteko. Ulertzeko ez bait dau orren bearrik.

Agur, adiskide. Eta, ea noizbait batera etortzen garan.

Latiegi'tar Bixente

## JOÑ EÑBEITA (1990-1,99)

Urte asko ez dirala argitara eban poema liburuari B. Gandiaga'k egin eutson aurkezpena. Asita bereala, onan idazten dau: "Jon Enbeitak landu dituen poemekin aurkitu naiz gaur. Gustora ditut irakurri. Eta ez naiz batere lotsa antologia gisan eratu duen bildumatxo hau zuri aurkezten. Ez da haize handiko. Ez da haize berri edo ez ezaguneko. Herriko eta uriko haize epel eta maitagarriaren bilada gozo da. Leiho ertzetan, balkoietan zintzilik bipergorri xortak ipintzen dituen paraje hartatik datorkigu: Muxikatik. Poemak hementxe dituzu jaiotze urte eta guzti".

Nor dogu, ba, Jon Enbeita? Aita (Balendin Enbeita) eta aitona (Kepa Enbeita. Muxika'ko Urretxindora) bertsolarien seme billoba; B. Enbeita'ren semerik gazteena, bertsolari ta olerkari batera. Muxika-Areatza'n jaioa, Zabale-Ormaetxe baserrian, 1950-3-22'an.

Mutikotik etorren argia, eta len-ikasketak bere erriko eskolan egin ondoren, Foru'n eta Arantzazu'n bete zituan besteak, komentu biotan irakasle zuur-onak izanik. Ogei urteko zala, komentuko bizitza laga ta sei bat urtez, gitxarra besapean (orduan moda zanez), abeslari ibilli jakun. Gero ezkondu ta Gernika'n bizi da emaztearekin eta Zihara ta Oihane alaba birekin, bizkaiko Aurrezki Kutxan lan egiten dauala.

**Olerkari.**—Etxeko giroari esker, Enbeitarrak danak izan dira bertsolari. Iru urtegaz bere aitak idatzitako "Jesus'en bizitza" izeneko antzerki baten artzain jantzita kantatu eban. Zortzi urtegaz, ostera, aitak Ariatza'n sorturiko "Garriko" bertsolari eskolan bertsoak idatzi ta abesten zituan. Bederatzi urtegaz plazaratu ta bertsoak oiukatzen ebillen. "Ordutik eta hamabi urtera arte-diñosku berak- plazarik plaza ibilli nintzan, aitaren gidaritzapean eta, gehienetan, ireneo Ajuria (ni baino hiru urte zaharragoa) lagun nuela. Hamaika urtegaz Bilbon Bizkaiko bertso-

lari gazteen txapeldun egin ninduten. Kontraio-rik ere ez zen, egia esan. Hamairu urtegaz Arantzazuko Seminariora joan nintzaizuen".

Amasei bat urtegaz asi zan olerkiak ontzen, eta luzeak ain zuzen be, arnasa aundikoak. Baiña amazapi urtekoa Foru'n ikasle zala ikas-tetxe au erre egin zan, Eta "neure guztia, liburu, koaderno, jantzi..., dena erre zitzaidan. Euren artean neure bertso eta lehenengo olerkiak"... Gero, eta nobiziaduaren azken aldera, metrika barruan... Ondoren, hemeretzi-hogeiurtetan olerki askeak egin nituen. Bide berrien bila abiatu nintzen".

1975'an, Mallabi'n, Bizkaiko bertsolari gazteen txapeldun izendatu eben. Ordutik aurrera beste sari batzuk, "Orixe" saria ta abar izan ditu. Eta guztiok dakigu 1986'an "Euskalerriko Bertsolari Txapelketa Nagusian", Donostiako Anoeta'n martxoak 23'an, azken Finalean, goiz eta arratsalde (ni be an nintzan), Jon Enbeitak egin euskun paper bikaiña, ia-ia txapeldun geratzen jakunekoa.

Jon'ek gaztetan, beronen sasoiko bizkaitar bertsolari Amuritz, Lopategi, Sardui ta besteak lez, gizatiar ikasketak sakon egiñak ditu eta onek naikoa esan nai dau, geroko jardunerako, naiz bertsogintzari naiz beste edozein gairi oratu. Len-ikasketa sakonak egi-egiaz izan oi dira lagungarri.

Poesigintzari buruz, berak autortzen dau, len-olerkiak luzeagoak egiten zitula, asti geiago ebalako; gero barriz, "dena ardura, ariñeketa", laburrak, flash gisara egiñak. Gandiaga'k egin-dako itaun bati erantzunez, onela diño Jonk: "lehen olerki laburrik ez nuen egiten. Lehenengoak, ideien aldetik, kreaziñoko lan gehiago. Oraingoetan, ostera, kaptazinoa momentukoa dela, esan, nahi dizut, bat-baterako burutazino bat dela. Oraingoek ordenazinoko lan gehiago

dute, ideia gehiago dago olerki bakoitzean, eto-  
rriari-itxoite eta erantzute gehiago, dute, bista-  
rako egokitze-lan gehiago, sarritan erraza eta la-  
burra ez den lana, egia esan".

Olerki-liburu bat dauka Jon'ek, "Inguruaren

arduraz" deitua eta "Hordago" argitaletxeak ar-  
gitara emona, 92 orrialdekoa. Poema motzez eta  
luzez ornidua.

Ona liburu ortako bi "Baratz erdian" eta "Erle  
bizkorrak

Baratz erdian  
lore artean  
begira gosez begira  
usain goxotan  
murgildutako  
lore mardulen argira  
Lore burutan  
irriz ebilen  
eguzkiaren diztira.

Nere begiak  
aske ebiltzan  
Baratz osoan saltari  
begi atzean  
nere arima  
loreetan ameslari  
zori jorana  
usain haretan  
ase nahiean urduri.

Zan ez-zan-ezko  
haize biguna  
kilikilika loretan  
Egun sentiko  
brintzen diztira  
ihintz tantotan olgetan  
Ihintz tantotan  
olgetan eta  
loretxoekaz berbetan.

Eta beste au, Anoetan abestua. Iru bertso es-  
katzen ziran sei puntu ego geiagokoak. Gai  
ontzaz: "Ijitu kastako aurtxo bat aurkitu dabe

kalean, otzez dardarka ta gosez. Bertsolaria,  
umetxoa besoetan artu ta kantari:

Ene hartxo maitea  
ez duzu atsegin.  
Kale ertzean hotzik  
txakurren berdin,  
zure ama zer gauzak  
ote du eragin?  
Bere haurra honela  
baztertua zedin,  
duzu mila samin,  
zaitte nigana jin,  
egiten dizut zin;  
saiatuko naiz fin  
mundua zuretzako  
ederra dedin (bis).

Zurretzat izan nai dut  
aita galai,  
zuri kantuz dagoen  
goiz-txori alai;  
maitez laztan itzazu  
lore eta zelai;  
haziko zaitut, haurtxo,  
sendo eta ernai;  
ni nauzu zure kai,  
nauzu irrien zai,  
nai nuke izan gai,  
esan eidazu bai,  
ta geiago malkorik  
ez dut entzun nai (bis)

Haur txiki bat honela  
baztertu beharra,  
ama zintzo batentzat  
ez al da larra?  
Baina bukatu zaizu  
zure ezbeharra,  
eta jaso egizu  
ta zabal bularra,  
bizi nahien garra,  
eta zure indarra;  
ta gero izarra,  
bihotzeko haurra;  
nik irri egingo dut  
zure negarra (bis).

Onez gaiñera, Jonek baditu iru diska be, bat,  
txikia, bere abestiz ornidua, eta beste biak, bere  
aitarekin batera.

## MAO ETA BATASUNA

Askotan pentsa izan dut, Mao'k bere eskuetan indar guziak izanda, zergatik ez ote zun txinar idazkerarik aldatzen.

Gaitza eta zailla bait da txinar idazkera.

Ainbeste zirriborro letra bakoitzeko...!

**Bost zailtasun** eta **iru geiegizko** omen ditu idazkera ideografika orrek. Ona iru geiegizko oiek: 1/letra edo izki geiegi; 2/izki oien era geiegizkoak; Mesan ere era askotara esaten dirala.

Bost zailtasunak auek dira: 1/ezagutzen gaitzak; 2/irakurtzen gaitzak; 3/idazten gaitzak; 4/gogoratzten gaitzak; 5/klasifikatzen gaitzak.

Guretzako gure izkuntzetako izki bakoitzak soiñu eta ots bakar bat du; txinatarrentzat, berriz, izki bakoitzak soiñuak ditu asko ta desberdiñ eta idea bakarra, gogaia bakarra...

Izki bakoitzari gogai bakar bat dagokio.

Orretan dago gure eta txinarren arteko alde aundia.

Idazteko-makina batek zer zailtasun ditun ez goaz esatera ere: ogeita bost kiloz goitik pixatzen du txinoz idazteko tramankulu batek... Eta ura erabiltzeko bear diran trebetasun eta kemenak...!

Gauzak orrela badira, idazkera ori aldatzea bearezkoa da. Ori edozeiñeri datorkio burura. Mao'ri ere bai. Zergatik ez ote du egiñ, indar guziak bere eskuetan bazitun...?

Korapillo zaarra ori.

Aska gabea, gaiñera.

Kristo-aurreko III'en gizalditik asita zeuden Txina'n zailtasun oiak aska eta arindu nairik... Izki-ugaritasuna **iru millatan** esi nai izan zuten orduko agintariak; baiña, alperrik, basoko perretxikoak bezela ugaltzen bait dira izki berriak... Oraindik-orain (1955 urtean) izan zuten billerak **amar milla** izkiak (idazkera normaletan erabiltzen diranak) **millara** beartzeko...

Korapilloa zertan dagon:

Gure idazkerak belarrietan jotzen gaitu, txinar idazkerak berriz buruan...

Z-o-r-tz-i idazten dedanean izki bakoitzak bere soiñu berezia du: bost soiñu **Zortzi** idazten badet, itz ori euskaldunak bakarrik ulertuko du; baiña, **8** jartzen badet erdaldunak ere ulertuko du, baiña onek ez du **zortzi** esango **ocho** baizik... Bide-zabaletan

ibiltzeko seiñaleetan ere berdin gertatzen da: seiñaleak bakarrik izan da ere, izkuntza bakoitzetan dituzte itz bereziak... Seiñale bakoitzak du bere esatekoa, ikasi egin bear ordea zer esan nai duten... Txina'n izki bakoitza trafiko-seiñale bat da, ta zer esan nai duen ikasi bear. Orrelako izkiak idazkera normaletan erabiltzen diranak **amar milla** dira... Zer zailtasun dakarren orrek berekin...!

Ikasi ezkerero ez dira izkiak bakarrik ikasten izkien esan-naia ere bai, gauzak berez nola diran ere bai... Eta ori bentaja aundia da.

Txina erri oso da zaar eta ugaria. Millaka urteetan idazkerako izkiak **zer-esan-naikoak** erabili dituzte beti. Baiña, lurralde bakoitzean izki oiek bakoitzak bere erara irakurtzen ditu: orra idazkera bakar bat Txina guzian eta izkera asko desberdiñak... Txina'ri batasuna idazkeratik datorkio. Idazkera ori, ikasi ezkerero, edozeiñ izkuntzetako txinoak ulertzen dute; irakurtzen ikasi bear, ordea... Eta lan orretzek ditu **iru geiegizko** eta **bost zailtasunak**...

Nolatan geiegizko eta zailtasun oiek kendu?

Txinar idazkera gure idazkera biurtuta: soiñu bakoitzari izki bat egokituaz.


Orrek gauza erreza dirudi.

Errezegia.

Txinar izkuntzekin zer egin gero? Bat aukeratu batasuna egiteko, besteak ill.

Baiña... (beti dira baiñiak erabakibear guzietan) orrek izkuntza eta kulturaren aberastasunaren ondarmendia dakar, pobretasuna; batasun guzieren aldeantzia pobretasuna bait da. Oiek aurrera eramateko indar eta indarkeriak baditu Mao'k, asmoa berriz 1949-X-10'an artu zuten (Agintaritzara eldu eta amargarren egunerako); baiña oraindik asmo ori aurrera eramateko daude, batasuna egiteko izkera aukeratu bazuten ere... Pekin'go jakintsuen izkera aukeratu zuten Txina guzirako: Mandarin-izkera, alegia. Batasun aundia zuten elburu eta bideak errazak ez baziran ere, eskoletan umeai eta gazteai erakutsi ezkerero... Indarrak eskuetan zituzten, Batasuna gauza guzietan ikurrin eta alaz ere... Zerk galdi arazi du burdia...? Mao'k ogei urte balitu egin zuan batasuna: Txinar Batua... Baiña, Jakinduria urteekin dator (etortzen bada) eta Batasuna lortzeko zer galduko dan begien aurrean eduki bear.

A. ARRINDA



## GALINDEZ

Amurrioren lurra  
Araba zabalean  
emoiz oparoa;  
zure erraiak zabalduz  
sor zenduan aritza  
gizon egizkoa.

Argi utsa ziñan  
goi urdiñeko izarra  
lurrera jatxirik;  
begiak zabal, zorrotz,  
jakituriak artzen  
lintze biurturik.

Amurrio maitea,  
jaioterri bakarra,  
zure biotz guna;  
lur guztien artean  
odolaren abia,  
Aberri kutuna.

Jaiotzatik dakuzu  
ama lurra negarrez  
kateiaz lotuta;  
otso ankerra dabil  
euskaldunen lur gosez  
urdailla ustuta.

**ERRIRA BEGIRA**  
Ikasle bikain ziñan  
atzerriko lurretan,  
izarra iduri;  
zure erri-maitasuna  
goi argiaren antzo  
zendukan urduri.

Ez egon lur oberik  
eztia erionik,  
sorterriak legez;  
biotzaren zorra da  
diruz ordain ezina  
odolaren miñez.

Guda diabruzkoa  
baliarazi nai zan

kristau izenagaz;  
baiña otsoak otso  
azeriarekin lagun  
milloi bat illagaz.

Guda madarikatua  
Aprikan sortu ziñan  
Frankoren agotik;  
baltzak bultz eraginda,  
a zan odol gosea  
biotz galgarritik...!

Madrillen entzun zendun  
guda ots galgarria,  
lurra lotsatuta;  
uxen biurtu dira  
odol zale zirenak  
gaitzak zoratuta.  
Euskal etxe lorea  
Madrildarrak artuta  
kalean tatarrez;  
ikurriña erretan...  
Madril zara testigu  
etsai zoritxarrez.

Ogei eta bat urte,  
aritza zirudizun  
zabal, luze, giar;  
Aberriaren miñak  
gaztien odolagaz  
egiten deadar.

Nora nai jungo ziñan  
Aberriaren garrez  
euzko lurra zaintzen;  
amaren bizi dana  
iltzear egoala...  
nor ez da jaubetzen...

Gaztedi indartsua!!  
buru, biotz, egitez,  
izan ziñen duiñak;  
egia zan gidari  
munduan zear, beti,  
euzkotar bikaiñak.

Erritik urrutira  
beartu zinduezan  
sorterri etsaiak;  
gudak gorritu zitun  
Euskalerriko mendi,  
zelai ta ibaiak.

Baiña zure gogoak  
burdiñezko Iduri  
gizontasunagaz;  
egia maite zendun  
eta ezin ixildu  
itza guzurragaz.

Amerika lurretan  
zuzengakeria  
ebillen nagusi;  
zure gizontasunak  
ezin eban onartu  
gizon basa-nausi.

Baiña nun sartu ziñan  
asmorik zuzenenaz  
euzkotar Galindez...?  
Trujillo guda-buru  
itxaroten zendukan  
laster, ilbearrez.

Zure zuzentasuna  
ta Trujilloren asmoak  
etsaigo bizia;  
bildots errukarria,  
jauntzarrak kendu eutsun  
egizko bizia.

Egiaren irudi  
oroituten zaitu, gaur,  
gure Euskalernak;  
zure lan ta odola,  
indartsu, deika dagoz,  
illezkor egiak.

PAULIN

## BERTSOETAN

# UDAKO MADRIGALA

Lot eidan neuregaz ire ago gorria  
ijitoemeen Izarra.

Goren danean eguzki urretsu gorria  
orskatuko deunat sagarra.

Mauritarren torre bat ba yagon an mendixkan  
olibondo berde arteko,  
goiznabar eta ezti kutsuz beteko donan  
ire aragi kolokero.

Ire soin baltzizka errean eskeintzen deustan  
erreka narean lilia  
eta aizeetan argia sortzen yozanan  
jaungoikotiar janaria.

Zelan jaus intzanan nigana argi beltzeran?  
Zer dala eta eustanan ba  
maitez beteko ire lili sexua eman  
ta ire ditien obauba?

Ene itxura murriztuagatik ete zan?  
(oi ene ibilkera baldar)  
Ene bizi onen kupida ar ete eunan,  
ain legor eta kantu igar?

Zelan ez ditun obetsi nire erostak baño  
Deun Kristobal baten izterrak,  
nekazaritar ta sendoak —izerdiz laño-  
maitaroan geldo t'ederrak?

Atseginaren Danaide, ni non ire kutun,  
Silbano emakumezkoa.  
Udara agorreko gariaren usainez dun  
ire ezpanen apa gozoa.

Laus eidazan ene gebiok ire eresiz  
eta utzi zabal zabala  
larrean ire adatza, eder eta dizdiz,  
gerizpe mantu bat bezala.

Eure ago odoltsuarekin margo eidan  
amodio baten zerua,  
aragi gordinenaren mamin-maminetan  
saminaren izar larua.

Andaluzitar Pegao au katigu yagon  
ire begien zabalean,  
egaz egingo yon goibel eta gogo-sakon  
bi biok illik ikustean.

Ik maitatuko ez nindunan arren, nik i bai  
ire bi begi baltzengatik,  
txoriñoak yonan lez goizbarria maitegai,  
intzagatik bakar bakarrik.

Lot eidan neuregaz ire ago gorria  
ijitoemeen Izarra.  
Utzi eidan goi danean eguzkia oria  
gozo-gozo jaten sagarra.

F. GARCOA LORCA

Euskeraz: A. Bidaguren

## AURTZAROKO OROITZAPENA

AURTZAROA gogoratzuz bizi ta naiz ilten.  
Ume eldu bat dirudit baiña, ume bat naiz;  
zarrapartuta ametsakaz naiz burrukatzen  
baiña, ez det aztutzen lengo izana, gogaiz.

Urteak joan doaz ta, lengo lez nai dodaz,  
oroimenean betikotuz gauza gozoenak  
ta, sakonkiro, bizi-zaletasun orregaz  
darrait, begipetuz oroitz aintzagarrienak.

Aurrerazko ibilte oro da itzultze bat,  
lora ta txori bakoitza izanik bide bat  
itzultzeko kantari, lenengo mosuetarat.

Alan ere or dago eriotzea, unero zai,  
ta, aurtzaroa da edandako ardo mozkor bat,  
lañopean an urrunan dakustana, deslai.

MUNIATEGI-TAR SABIN

Errenderia'n (1985)

## EZ NEGARRIK

Oi Euskadi, ene odolene amalur mina,  
mila otsoren gorrotoa dozu zeure jai  
eta astegun triste gogortuen mamina  
noiz, errukige, orskatu aal izango zai.

Argien bestaldeko infernu-irakina  
datortzu zeure idun ederraren bitxigai.  
Kate gorri gorien aizearen samina  
dabilkizu itotzen ago, arima t'errai.

Oi ene Ama, begietan dozun iluna!  
Erio urbilaren gau baltzeko erlatza  
doakizu itxaro apurtuen barrena.

Ala ere, mila otsoren ulu ozena  
baino zoliago da zure garraxi latza,  
arri ta burdin baita zure odolene guna.

A. BIDAGUREN

## BERMEO'TARRA KOREAN

Uribe'tar Luis Mari. Gizon gaztea da eta Egoaldeko Korea'n dago. Berak daukon zeregiña, azaletik ikusi ez-kero, ez da atsegingarria, baiña gizabidetik begiratu ez-kero, benetan ederra da. Gure gazte au legendar edo lepradunen alkarte bateko zuzendari da. Lekaide Frantzisko'tarra dogu.

Lenago Bolibia'ko Goi-aldean egon zan, Aimara'tarren errian. Pozik bizi izan zan an eta euren izkuntza be ikasi eta lan aundia egin eban lurralde aretako giza-bizitza mailla egoki batera jasoteko.

Alan be Aita Uribe lurraldea ta biziarea aldatzea erabagi eta Asia'ko lurralde batera joan zan ango biztanleen alde al ebana egiteko asmoaz.

Song-Sim-Won errira joan zan. Ango gizataldea be legendaruda da eta mendi-egal baten dagoan uritxu baten bizi dira. Ortxe batu ebezan inguru areitako legendarudun guztiak.

Luis Mari Aita txabola baten bizi da eta bere janaria katillu bete arroz izaten da.

Oparraldiak be izaten dauz. Igaz etorri zan Bermeo'ra eta lagun batek itaundu eutsen:

— Zenbat urte egin dozuz Asia'ko erri orretan?

— Amar urte - erantzun eban.

Gero andik ekarri ebazan argazkiak erakusten asi jakun eta esan eban:

— Begiratu gizon au. Jon da onen izena eta 57 urtekoa da. Amar urtekoa zala itzi eban eskolea gaiso bakan bat agertu jakonelako. Lenengotan, legendarra zala konturatu ziranean, inguruko txabola batera urteteko beartu eben, ezaugarri bat ezarri eta izurri-bildurraz baztertu eben.

Gero beste argazki bat atera eban: Arpegi gazte bat eta irribarrez, eta esan euskun: "Gazte oneik osasun-itxuraz legendarudunak dira. Jazoten jakena auxe da: Gaisoaren baziloak ez daukala agertzeko indarririk".

Bat-batean isildu egin jakun gure Luis Mari eta irribarre argi ta zabal bat agertu zan bere aurpegian beste argazki bat erakutsiz eta diño:

— "Au Peki-Ryong da, bost urte daukoz eta legendarudun baten semea da. Olakoak be emen batzen doguz. Ikusi egizue zelan begiratzen nauan. Bere gurasoak baiño be geiago maite nau".

Uribe'tar Luis Mari'k berba egiten dau baiña patxada onez eta gelditasunez entzuten be ondo daki. Egiten dautsaguzan itaun guztiak artzen dauz kontuan.

Bizkaitar gazte au Bermeo bere jaiotza-errira etorri da eta bonzo baten antza dauko. Bere ule-ebagikerak ori adierazten dau eta diño:

— Asikeratik eurakana urreratzeko alegin aundia egiten dot, augaitik Korca'ko izkuntza ikasi dot eta ulea one-lan ebagi. Alan eta guztiz be euretarikoa ez zara sentitzen, beti zara atzerritarra.

Alkar-izketan une onetara eldu garanean, argi ta garbi asi jakun esaten:

— Guztiz gogor eta gaitz egiten da euren izkuntza ikas-tea eta ikasten zagozan bitartean eurak barre-algaradak egiten dabezela entzutea, baiña gogorrigo oraindiño, norberaren burua atzerritar lez ikusi eta eurak orrelan begiratzen gaituena jakitea.

Eurentzat mundua Korea, Japon eta Txina da. Gero iparraldera Errusia eta egoaldera Amerikak. Euren artean edo komunisten salatara zara edo euren lurraren jabe izatera datorren amerikatarra.

Ori euren burutik kentzeko, beti egon bear dozu ezetz esaten, ukatzen.

Korean dana dala ona esan bear dozu, Korea'ren bes-teko erririk ez dagoala iñon. Neurri bako abertzale bildur-garriak dira.

Euren gobernu gogorra eta ertzekoa izan da. Eurak bakarrik salatu leikee gogorkeri ori, norberak olako zerbait esan ezkeru, salatari lez artzen dabe edo salatari bat izaten da inguruan.

Bizkai'ra eldu zanean, Bermeo'ko Frantzisko'tar oneri pozbide egin jakon Bizkai'tar izatea, sorterrian egotea; giro baketsua, pozgarria, alai aurkitu dau berak diñoanez.

— An bearrigo zara eta barriro joan bearko dozu, baiña an beti egon bear dozu zu-izkillu biren artean: Gazteen artean batez be, amerikatarren amorru bizia somatzen da eta beste alde batetik gizartearen aurkako gobernu, eta gudearen ondorena dan beste au: Ainbeste sendi Iparraldeko Korea'n eta Egoaldekoan banatuta, gitxi gorabera Alemania'n Jazoten dan antzera. Noiz elduko ete da ara oraintsu Alemania'ra eldu dan poz-aldia.

LETONA'k

## TXARKERIA

# ZERGAITIK

Lur onetan bizi dan artean gizonari aurkezten jakon arazorik kezkarrieneratariko bat, txarkeriarena izaten da.

Jaungoiko alguztidunaren maitasuna sinisten dauan edozeiñentzat sortzen da txarkeriaren arazoa baiña arazo ori aundiagoa da Jaungoikoa ukatzen dauanarentzat. Arlo onetan deistak zaurigarriago dira. Ori agertzen dau Harry Kushner'en liburutxu batek, orretarako alegiña egiten dau beintzat eta gogamen asarregaria agertzen dau.

Liburu ori irakurteko astia izan dot eta irakurgai orretan Josu-lagundikoa da Pier Teillard de Chardin jakintsu ta mistikuaren liburu oargarria dan "Jaungoiko-Giroa" ondo ezagutzen dauala bururatu daust.

Harry Kushner'en liburua, Jaungoikoak bizia eta osasuna emoten ba'daustaz inglesetik euskerara ta gaztelera itzuli nai neuke. Idazti au Kushner'ek eta bere sendiak ebezan samintasunen ondorena da eta ondoren zintzoa ta egizkoa.

Bere semea gaitz batek gaztetan eriotzara eroan eban eta oiñaze ta gaiztakeriaren arazoari erantzuna emoteko, Jaungoikoagan daukon sinismena gordeko leuskion alegiña egiten dau. Oiturazko erantzunak begiztatu eta atzertzen dauz arduraz. Bere esperientzia edo oar-ikasia geide minduai agertzen dautse eta bere sinismena laguntza biurtzen jake eta aundiagotu egiten da.

Inguratzen gaituan txarkeriari buruz, ainbeste eroaten dauzala gogoratzen dau Jaungoiko alguztiduntasuna ukatzera eta uler-

men-era orreri eupada bat egitea nai dau aurpegia emoteko. Kushner'entzat Jaungoikoa ezin izan leiteke txarren eragille eta iturburu.

Bai beste aldera, minduta eta jasankor dagoanaren maitale, jazoten jakun txarrik nai ez dauana da Jangoikoa.

Gure bidera datorrenean Jaungoikoagan itxaropena eta uste ona euki geinke beti, bera guri laguntzeko prest dagoalako, berak ondo dakiala txarretik ona ateraten, beragana urreratu geintekozela beti bear dogunean, une guztietan.

Idazle onentzat ez dago txarraren eta oiñazearen arazorik, azalpenak emoteko. Aunartzean ez dago ardurarik zergaitik dagon txarkeria edo zertarako jazoten jakun, bere izatea jakin eta beragaz zer egin bear dogun baiño.

Bigarren gai onetan, batez be, Harry Kushner'ek ekiten dau bere liburu goragarri onetan eta bere berbak zalantza bako ondoren ona lortzen dabe.

Txarraren eta oiñazearen gaia aztertzen dauan idazle onek idatzi dauanagaz ainbeste irakurlek artuko dabe atsedena ta arinaldia, berariz aren zintzotasun eta argibidea sakonak diralako, egizko argitasunean oiñarritzen dalako.

Liburua arduragarria da, irakurteko erreza, atsegiñezkoa eta guttiz garrantziduna.

Ain zuzen be, berak diñoananez, ez da akademi-giroko ertizaiña, zentzunezko jakintza darriona baiño, eta irakurleak laster jakingo dau zer esan nai dauan, buruan sartu jake egilleari.

EGILUZE'k



# IÑIGO'REN LORATXOAK

## LOIOLA'KO IÑIGO AZPEITIA ERRIAN

(Jarraipena)

### IÑIGO BERAREN AUTORMENAK

"Nire jaioterrira etorri nintzañean, geiegikeria batzuk kentzen alegindu nintzan, eta Jaungoikoaren laguntzaz zerbait zuzendu zan, jokoan adibidez, eragotzita zegoena benetan eragotzita egotea lortu neban, erriko agintariak legea betetzera ekarriz.

Ba zan orduan Azpeitia'n beste geiegikeria bat be, eta au zan: Gipuzkoa'n neskak beti burutsik ibilli izan dira, eta ezkondu arte ez dabe burua estaltzen. Baiña asko dira abadeen eta beste gizonen oelagunak egiten diranak, eta leialtasuna gordeten deutsee, euren benetako emazteak balira legez. Eta oitura au ain zabalduta dago, oelagunak ez dauke bat be lotsarik alakoarengatik burua estaldu dauala esateko, eta alakotzat ezagutuak dira. Eta emendik kalte andia sortzen da. Nik Gobernariari legea egin-azo neutsan, iñorengatik iñork burua estaltzen ba'eban aren emaztea izan barik, justiziak zigortua izan dadilla; eta onela geiegikeria ori kentzen asi zan..."

Azpeitia'ko testiguak gai oneri buruz argitasun geiago emoten deuskue.

"Ba ziran garai aretan Azpeitia'ko urian emakume batzuk oker bidetik ebizenak, onein artean: mendiola'ko Madalena, "Sendo" esaten eutsoena, eta Izpizua'ko Katalina, oneik biok Azpeitiarrak, eta Enparan etxean neskame egoan Asteasu'ko neska bat. (Onen izenik ez dabe testiguen emoten.)

Mendiola'ko Madalenak, Iñigo'ren itzaldiak entzunda esan eutsan Antxietako Ana'ri: Ana, Iñigo'ren itzaldiak biotza jo eta erdibitu deust. Nik pekaturako bidea ixteko Erroma'ra erromes joateko asmoa artu dot nire beste lagun birekin, zuk gurekin etorri gura ba'dozu, gaurtik aurrera Jaungoikoaren serbitzuan bizi gura neuke".

Mendiola'ko Madalena eta Izpizua'ko Katalina Azpeitia'tik erromes Erroma'ra abiatu ziran. Katalina bidean il zan, baiña Madalena Erroma'ra eldu zan, eta an barrero be Iñigo ikusteko aukera pozgarria izan eban.

Irugarrena (bere izenik ez dakigu) zarra zalako, Erroma'ko bidea ezin eginik, Eizmendi'ko ermitara baztertu zan, an serora legez bizi eta iltzeko.

Ba ziren orduan Azpeitia'n beste bost edo sei olako emakume geiago, Iñigo'k bide onera ekarri ehazanak, baiña euren barri geiagorik ez da gureganaiño eldu.

### IÑIGO LOIOLA'KO BERE ETXEAN

Iñigo'k, Azpeitia'n egoala, bere Loiola'ko etxean be ba-eukazan arazo ez txikiak. Madalena, txiro-etxeko neskameak, begira zer kontatzen deuskun:

"Egun baten Madalena'ko ospitalera Loiola'ko nagusiaren emaztea, Araoz'ko Madalena, bere etxeko talde andi batekin, etorri zan, Iñigo bere koiñatuari Loiola'ra joateko eskatzera. Iñigo'k erantzun eutsan nekatuta egoala eta beste egun baten joango zala.

Araoz'ko Madalenak barrero ekin eta ekin eskatu eutsan, arren, "bere gurasoen arimengatik" Loiola'ra joateko. Baiña Inigo'k barrero ezetz erantzun eutsan.

Irugarren aldiz Madalena'k, lurrean belaunikaturik, 'Uesukristo gure Jaunaren nekaldiagatik eskatu eutsan, arren, Loiola'ra joateko. Iñigo'k "Jesusen nekaldia" entzun ebanean, esan eutsan: orregatik eskatzen deustazu? Joango naz ba, eta ez Loiola'ra bakarrik, baita Bergara eta urrunago be.

Gau aretan Iñigo bere jaiotetxera joan eta urrengo egunean goizean goiz ospitalera itzuli zan, eta errian zabaldu zan, Loiola'n oe biguna jarri ba eutsoen be, ez zala bertan etzun".

Zer gertatzen zan Loiola'ko etxean ango etxe-koandrea, Madalena, ain Jarri eta estu jartzeko?

# SANTUAK

Urte batzuk geroago, Iñigo'k berak, Erroma'n bizi zala, gertakari au kontatu eutsan Jesusen Lagundiko Aita bateri:

"Paris'tik nire jaioterrira etorri nintzanean, nire etxekoen artean, Loiola'n bizi zan "lenengo" bat, bere amoranteagaz bizi zala jakin neban, eta gauero emakume a ezkutuko leku batetik etxean sartzen zala. Gau baten, ni zaintzen egonda, emakume a aurkitu neban, eta esan neutsan: Zer egiten dozu emen? Eta emakumeak zer gertatzen zan esan eustan. Nik neure gelara eroan an gorde neban, pekatu egitera ez joateko. Eta urrengo goizean, lenago ezin nebalako andik bialdu neban".

Zein ete zan Loiola'ko "lenengo" ori?

Garai aretan, Madalena'ren seme zarrena, Beltran, Bergara'ko Joana Errekalde'rekin ezkontzeko berba emonda egoan, baina alan eta guttiz be artuemon estuegiak eta ez ain zuzenak eukazan Azpeitia'ko neska batekin. Eta emakume au izango zan ziur Iñigo'k Loiola'ko etxetik bialdu ebana.

## IÑIGO BAKEAK EGITEN

Esku ona eukan Iñigo'k etxekoen artean sortzen diran tira-bira eta asarreak konpontzeko, ikusiko dogunez.

"Barrenola'ko baserrian bizi ziran senar-emazteak ez eben alkarrekin ondo artzen, eta beste pertsona batzuk aurretik bakeak egiteko aleginak egin arren, ez eben ezer lortu. Iñigo'k papertxo bat bialdu eutsan etxeko jaunari, ospitalera etortzeko eskatuz. Etorri zan, eta Iñigo'ren aolkuz bakeak egin, eta bere emaztea etxean artu eban".

"Soraluze'ko errian be eztabida andiak sortu ziran aita eta bere seme baten artean. Iñigo'k bieie Azpeitia'ra etorteko eskatu eutsen, eta biekin berba egiñez bakeak egin ebazan, eta gero Iñigo'k Erroman egoala arein eskutitz asko artu ebazan zein pozik bizi ziran esaten..."

Aspaldikoak ziran Azpeitia'ko urian Moja frantziskana eta parrokiako eleiz-gizonen arteko ezin ondo konponduak. Asarre orreik ez eutsan

bat be onik egiten kristiñau zintzoen federari. Iñigo'k bien arteko konponbideak asmatu ebazan, eta azkenean bakeak egin ebezan, eta ziurtasun geiagorako notari eta testiguen izenakin indartu ziran. Agiri orretan Loilatarrak bere bateoko ize-naz siñatu eban: "Iñigo".

## IÑIGO ETA BEARTSUAK

Bere erriko pobreak be ez ebazan Iñigo'k aztuta itxi, baiña bere autobiografian au bakarrik esaten deusku: "Agindu bat emotera bultzatu nebazan erriko agintariak: beartsuai laguntzeko agindua len egiten zanez".

Baiña guk geiago be jakin daikegu:

"Erriko agintariakin berba egin ondoren, onango erabagiak artu ziran, limosna eskatzean iñok amarru eta tranparik egin ez dagian:

1. Urtero erriko bi pertsona arduradunak aukeratu ziran, etxerik etxe erriko eta kanpoko txiroentzat limosna eskatzeko.
2. Erriko eta kanpoko eskaleak guttiz galerazota dauke uriko kaleetan limosna eskatzea, baita uritarrak limosna emotea.
3. Egiazko bearrean aurkitzen zaranak arduradunengana joan bearko dabe egoki dan laguntza artzeko.
4. Lan egiteko osasuna daukana ezin izango da esketik bizi.

Zeregin oneik amaitu ebazanean Iñigo'k bere jaioterrian egin bear ebazan lanak burutu ondoren, ostera be bere lagunakaz alkartzeko asmotan Italia'ko bidea artu eban. Iru illabete inguru egon zan Azpeitian osasuna obetzen eta esandako lanak azkeneraino eroaten.

Len pekatu-bizitzaz Azpeitia'ko erria zinkindu ebanak, orain santu-bizitzaz garbituta itzi eban.

IÑAKI GOIKOETXEA, S.J.



## EGUTEGIA - 10 (1990)

Amar urte dira gure egutegia ateraten eta irakurleai duan emoten dautsegula. Duan emote ori geiena beintzat, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren laguntza izaten dogulako da. Gure eskerrik beroena erakunde oneri.

Orri bakoitzean lenengo agertzen jakuna aurreko aldea da eta alde onetan goian illearen izena agertzen jaku. Izen oneikaz naste aundia dago euskaldunen artean, baiña guk erriak geien erabilten dauana ipinten dogu lenengo, eta gero idaztietan ikusten diran ille-izenak azpian.

Aukera ona egin dogula uste dogu, guztiak errez ulertzeko eraz.

Gero urte-barruan joandako egunak, joatekoak eta urtearen zenbakia agertzen dira. "Mensajero"ren irarkolan bertan ipiñiak dira.

Bardin azpian datozen eguzkiaren urtete-orduak eta illargiaren goraberak, irarkola orretan ipintzen dabez.

Ille-barruan egunari dagokion zenbakia ipiñi ondoren, astearen egun-izenak agertzen dira, illeen izenetan izan dogun jokabide bardiñagaz aukeratuta: Errian erabilten diranak eta idazkietan agertzen diranak, egun batzutan izen bi bata gainean eta bestea azpian agertzen dirala.

Urrengo urte-urrenak datoz, batzutan bi eta beste batzutan iru, egun onetan edo urreko egunetan (ori esaten da batzutan) urteen joanean munduan jazoriko gauzak gogoratzen dira, eta olako gomutakiak Augustin Zubikarai'k ekarriak dira. Guztiok dakigu Augustin arlo onetan oso aitua dana.

Urrengo santuen izenak. Zein izen aukeratu be izan doguz geure zalantzak. Geienetan Sabin'ek bere egutegian erabilli ebazan izenak izten dira, beste batzutan errian geien erabilten diranak.

Orriaren atzekoaldean agertzen diran irakurgaiak izaten dira lanak aundiena ta luzeena eta onetarako laguntzaille onak eta naikoa ugari izaten doguz, baiña irakurleren batzuk euren lanak bialdu nai ba'dabez be argitaratu leiz.

Lurrari eta landarai buruz lanak egiten dauskuz Jon Egilleor, arlo onetan jakitun danak, Jon Erramon Bilbao'k ateraten dauz euskal-liburu ta aldizkarietatik zatirik gurenak, Iñaki Zubiri EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren Lendakariak beste egun batzutarako erbestetik artutako jakingariak eta Nikola Arrieta'k euskerari buruz eta beste arlo askotako jakingariak ekarten dauz.

Gero gai guzti orreik egunetan ezartea tea bateratzea eta azken-begiratzea egiten dau Olazar'tar Martin'ek.

Orrelan, urterik urtera, amar urtetan argitaratu dogu gure Egutegia, erritarren aldetik onartua. Bizkaia'n zabaltzen da geien baiña Araba'n, Gipuzkoa'n eta Nafarroa'n be ba dira aurdura aundiaz eskatzen daben irakurleak.

# Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

## Bizkaia beti.